


noaua



**Euskaraldia gala eder
batekin agurtu zuten
Aginagan**

**Auzo galdeketa egingo
dute larunbat honetan
Santuenean**



**Asier Azpiroz Iztueta:
“Txapelketa Nagusiko finalean
jende berria ikusteak
poz handia ematen du”**

www.bertsozale.eus

TXIRIBOGA

TABERNA

Ondo pasa
Gabonetan!

GABONETARAKO ESKARI BEREZIAK PRESTATZEN DITUGU!

- Arrai zopa
- Txipiroiez betetako pikilo piperrak
- Txipiroiak (pelaio erara)
- Kroketak (urdaiazpiko eta onddoenak)
- Legatza saltsa berdean
- Bakaioa (bizkaitar erara)
- Etxeko Foie "Mi cuit-a"

eta berezitasun gehiago!!! galdeiguzu eta egin zure eskaera!!!

(24 eta 25erako eskaerak, 18an beranduenek. 1 eta 31rako eskaerak 27rako beranduenek)

943 21 88 40 IRAZU KALEA 6, USURBIL

URDAIRA

Sagardotegia

ABENDUAK 17, LARUNBATA
20:00tan **BARRIKOTEA!**

Aginaga 943 37 26 91



ABENDUAREN 18AN, 17:00 SUTEGIN

haur eta gaztetxoentzat filma

Sarrera: salgai 3€tan usurbilkultura.eus
plataforman edo NOAUko egoitzan

Albisteak iruditan

Santueneko bazterrak ezagutzen



Abiatu aurretik, argazki hau atera genuen Santueneko frontoian. Itzuleran hamaiketako batean parte hartzeko aukera izan zuten.

“Gure bazterrak ezagutzen” ibilaldia osatu zuten abenduaren 8an Santuenean jai eguna aprobetxatuta. Eguraldi txarra tar- teko, bidea berrantolatu behar izan zuten

eta Andatza magalean ibili ziren haur eta helduak.

Txikientzat bidean entretenitzeko jokoak prest zituzten: animaliak ezagu-

tzeko jokoa, hostoak ezagutzeko, ber- tsoak...

Amaieran, hamaiketako eder batekin borobildu zuten eguna.

Laburrean

Azken aldizkaria, astebete barru

Abenduaren 23an kaleratuko dugu urte- ko azken aldizkaria, gabonetako gehiga- rriarekin eta urte berrirako egutegiarekin. 2023ko lehen zenbakia urtarrilaren 5ean. Oharrak abenduaren 19a baino lehen he- larazi erredakzioa@noaua.eus helbidera edo deitu hona: 943 360 321.

Gaztelekutik Txuri Urdinera

Abenduaren 26an eta 29an irteera bana antolatu dute Gaztelekutik Donostiako Txuri Urdinera, 16:00-21:00 artean. Txan- go hauetarako guraso baimenak aurrez Gaztelekuan jaso behar dira. Informazio gehiago ere bertan jaso daiteke: gaztelekua@usurbil.eus / 943 371 050.

Andatzpe elkarteko bazkide egiteko aukera

Andatzpe elkartea Usurbilgo Kale Nagu- sian dago. Bazkide egiteko aukera za- baldi berri dute. Baldintza bakarra, 18 urtetik gorakoa izatea.

Informazio gehiago:

669 20 58 96 (Aitor).

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ainhoa Azpirotz

Qatar existitzen da; Iruñea ere bai

Porra egingo dutela esanez etorri da alaba ikastolatik. Beraien us-tez txapelketaren finalera iritsitakoak nola geratuko diren asmatzen saiatu behar dute; lehendabizikotik azkenekora. Ez da futboleko mundialaz ari; ez daude futbol taldeei eta telebistan hainbesteko presentzia hartu duten munduko selekzioei begira.

Qatar existitzen da eta Iruñea ere bai. Munduko futbol txapelketaren finala Dohako Lusail Stadiumean jokatu da abenduaren 18an eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia ere egun berean Iruñeko Nafarroa Arenan. Pozgarria iruditzen zait alabak bertsolarien arteko porra egingo dutela esatea eta ez futbol taldeen artekoa. Unai Muñozaren ekarpena izan da, estimatua eta eskertzekoa zalantzarik gabe, gure garaian Arantzazu Aranbururena, Joxe Mari Arzallusena eta Joxe Mari Izetarena izan zen bezala.

Abenduaren 18an bi aukerak izango ditu telebistan alabak, eta gertukoari eta geureari begiratuko dio. Gure mundu txikian, euskararenean, handiak diren buru-kirolariei entzungo die. Kirola eta kulturaren arteko aukeran bigarrenaren aldeko hautua



"Bertsolariena bai dela mundiala".

AINHOA AZPIROTZ

"Pozgarria iruditzen zait alabak bertsolarien arteko porra egingo dutela esatea eta ez Mundialeko futbol taldeen artekoa"

egingo du.

Ez da lorpen makala Bertsozale Elkartearena, FIFArekin elkarlanean, Irailaren 24an hasiera eman zitzaionetik milaka lagun gerturatu dira bertso saioetara, adin eta jatorri askotarikoak. Kuriosoa da bertsoak entzun bitartean publikoaren artean ikusten diren aurpegiei begiratzea: batzuk lasai eta konfiantza erakutsiz ikusten dira; beste batzuk urduri, bertsolariak berak baino urduria, haiek baino gehiago sufrituz azkazalak jan bitartean; beste batzuk aldamenekoari

zerbait xuxurlatuz... Pertsona urduriak eta mugituak; jakintsuak eta sosegatuak. Denetarik ikusten da eta denak emozioz bizitzen.

Isiltasunak eta bertsolarien ahotsek elkarri tarte ematen diote; aurrea bata eta gero bestea; orain isiltasun urduria, luzea eta serioa; orain ahots dardartia bezain sendoa. Eta hortxe sortzen da magia, gauzak bat-batean esateko modu eder horretan. Edertasuna eta gozamenak.

Asko entzun ditut aurten bertsolariak erakutsi duten maila altua goraiatzeko. Batzuek gehiago borobildu eta distira egin duten arren, guztiek erakutsi dutela maila altua. Hori zer den pentsatzen jartzen naizenean, alegia, zer den maila altua, konturatzen naiz bertsolariak -edo bertso-laritzak- gizartearen baino aurre-

rago doazela zentzu askotan: egunkarietako eta irrati-telebistako albistegietako titularrak eta albisteak baino sakonagoak dira bertsolarien irakurketak; gaiak azaltzeko erabiltzen duten euskara aberatsa eta landua da, goi mailako literatura; doinu berrien lanketa eta lortzen duten musikak txoriak ere mutu uzten ditu; bat-bateko etorriak eta jariatutasunak ez du parekorik; baserri munduko bertsolariekin batera aritu daitezke galtzak erdi erorita edo tautajeak dituzten bertsolariak; emakumeen presentziak gaien lanketa eta ikuspegia aberastu du; eta umorea beti irristatzen da errima eta errima artean.

Ez dakit alabak porra asmatuko duen edo ez. Amonari galdetu dio, zalea izateaz gain, amonak oso begi ona daukalako eta behin baino gehiagotan asmatu duelako. Ez dakigu nor izango den txapel-duna, baina irabazleak denak eta denok izango gara. Txapelketarekin gozatzeaz gain, urte osoan plazetan, festetan eta askotariko ekitaldietan izango ditugu zortzi horiek eta gainerako bertsolari guztiak, tartean Asier Azpiroz zubietarra. Eta horiek entzuteko eta ikusteko aukera izatea bai dela benetan ederra. Bertsolariena bai dela mundiala.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
PAIR 2022
lateketa

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Santueneko auzo galdeketa larunbat honetan izango da

Eguberrietako ekintzen artean ospatuko da auzoko kantzaren etorkizunaz erabakitzeko larunbaterako auzoan antolatu duten galdeketa.

Abenduak 17, larunbata

■ 10:00-20:00 Auzo galdeketa, Santuenea 12an.

■ Galdera: Nahi al duzu auzoaren erdigunea berrantolatu, horretarako eskubalo kantzaren neurriak txikitu behar badira?

■ Nori zuzendua: auzoan erroldatuak dauden 16 urtetik gorako bizilagunek parte har dezakete.



Asteartean izan zuten aurretiaz bozkatzeko aukera udaletxean eta Santuenea Elkartean.

■ 20:00 Bozka zenbaketa eta emaitza plazaratzea.

■ Deitzailea: Santuenea Elkar-lanean.

■ Egunean zehar, Gabonetako azoka txikia eta bazar solidarioa jubilatuen lokala eta auzo elkarteko lokalaren aurrealde-

ko kalean zehar. "Postu horietan auzoko nahiz herriko artisauek egindako eskulanak salgai egongo dira. Auzoko dendariak ere aukera dute produktuek kalera ateratzeko. Horretaz gain bigarren eskuko bazar solidarioa jarriko dugu, liburuak, arropa, bitxikeriak, jostailuak... denetarik egongo da. Gainera, gaztainak, parrilla... egongo dira".

■ 11:30 Haurrentzako jolasak/taillerrak eskubalo plazan.

■ 16:30 Xake partidak.

■ 18:30 Zuhaitzaren argiztapena eta Olentzerori eskutitza.

■ Dj Gorka Mendik gabon kantak jarriko ditu.

Ika-mika

Ondarea eta berrantolaketa

Santuenea auzoa 1.960ko hamarkadan osatua, eskubalo zelaiarekin izan zen hornitua. Bera izan da auzoaren ikurra urte askotan, kontuan izan 1969tik 1990era Usurbilgo eskubalo taldearen gotorleku zela. Bizitza oparoa eduki zuen, bere gorabeherekin noski. Euskal Herri osoan ezaguna, hogeitabat urtean herriko 65 ekipok, 700 partidatik gora jokatu zituzten bertan. Zenbat oroitzapen, zenbat sufrimendu eta zenbat poztasun, beti emaitza hobeak lortu nahian. Dударik ez dago, Santuenea mundura atera duela eskubaloiak eta eskubalo kantzak honek, esan liteke **ondare** bihurtzeraino.

Aurkari guztiek zioten errespetu haundia zela honi, ziur

zeukatenez bertan irabaztea ez zela samurra izaten. Hortik pasa ziren urte haietako Euskal Herriko talderik onenak, baita Kantabria eta Burgoskoak ere. Tamalez zelai estaliaren beharrak ekarri zuen bere gainbehera, egun eskubaloian kantzak estalietan bakarrik jokatzen baita. Oiardo kiroldegiak hartu zion lekukoa 1990ean.

Aipatzekoa baita ere, eskubalo zelaiaaren ekarpena auzotarrentzat. 1969an bertan kokatu zenez Usurbil K.E.ren egoitza, bertako auzokideek hartu zuten eskubaloia kudeatzeko ardura. Horrela ondorengo urteetan auzoko ume eta gaztetxoak, etxe guztietakoak, ekin zioten kirolari, inor ez zen izan baztertua, denek zeukaten lekua. Heziketa paregabe hori ordainezina bihurtu zen,

auzo bizitza sana eta aberasgarria lortzeko.

Eskubaloia desagertzean, erabilpena asko jaitsi zen, lekua bihurtuz gehiago auzoko plaza bat bezala, beti errespetatuz bere neurriak, noizean behin jokatu ahal izateko bai eskubalo edo futbol partidak.

Auzoko erdigunea berrantolatu beharra ikusten den honetan, oso ideia ona da eskubalo kantzaren inguruko zabalune hori lotzea Oria ibai-ertzarekin. Bi **ondare** hauek elkar uztartzea auzoarentzat irtenbide aparta da. Inolaz batera ezina liteke bi **ondare** horiek uztartzeko bietakoren bat moztea.

Eskubaloiko arauak diote, zelaiak laua izan behar duela, oztoporik gabea, 40 metro luze eta 20 metro zabal, gehi alboko bandarekin 44x22, eta 7 metro

altueran. Neurri hauek ez dira gutxigorabeherakoak, ziur eta zehatzak baizik. 1969an Santuenea kantzak eraiki zen Usurbilgo frontoiak neurri horiek ez zeuzkalako.

Berrantolaketa proiektuari begira, baldintza horiek betetzeak ez dauka inolako eragozpen edo zailtasunik. Arkitektuen arteko lehiaketa xume batek emango lituzke emaitza ezinhobeak, auzotarrak ere parte hartuz aukeratzeko egokien deritzona, beti ere **ondareak** errespetatuz. Kantzaren neurriak txikitu beharrik ez dago, denerako dago tokia.

Esteban Iribar Garmendia
Usurbil K.E.ko Idazkari ohia,
1981-1997.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ARTZABAL
BASERRIA • JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com
EGUNEKO MENUA
• KARTA
• RAZIOAK
• HANBURGESAK
• BOKATAK
943 36 91 39

GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Asier Azpiroz: “Bertsolari Txapelketa Nagusian zehar ‘diesel’ samar ibili naiz”

Igandean jokatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Iruñeko Nafarroa Arenan. Egun handian, Asier Azpiroz zubietarra bertsozale bat gehiago izango da. Donibane Garaziko finalaurrekora sailkatzea lortu zuen arren, saioa pattal samar atera zela adierazi digu: “ni ere ez nintzen oso gustura aritu”.

NOAUA! Lehenengo fasean, bigarren izan zinen Lizarrako saioan eta horri esker finalaurrekoetako lehenengo itzulirako txartela eskuratu zenuen. Donibane Garazikoan laugarren izan zinen eta hor amaitu zen zure ibilbidea. Gustura zaude egindako lanarekin?

Asier Azpiroz. Egia esan, lehenengo fasea pasa izanarekin oso gustura geratu nintzen. Baina egia da kantatu dudana bi saioak nahiko grisak izan direla. Finalaurdenetakoen artean, Lizarrakoa izan zen bigarren sailkatuak puntu gutxien atera zituenena. Kasu horretan, ni izan nintzen bigarren. ‘Diesel’ samar ibili nintzela esango nuke. Ez nuen bertsoaldi bakar batean izugarritzko gauzarik egin. Momentu batzuetan konektatu nuen publikoarekin, baina ez nuen ideia berezirik erabili eta hala ere lortu nuen pasatzea, baina izugarritzko saioa egin gabe.

Finalaurreko saioan kantatzek (Donibane Garazikoan) izugarritzko ilusioa egiten zidan, egia esan. Fase horretan plazak handiak izaten direlako, batetik; eta tartean finalistak ere aritzeko direlako, bestetik. Amets Arzallusek abestu zuen nirean, esate baterako. Baina egun horretan ere arratsalde gris samarra atera zen eta ni ez nintzen oso gustura gelditu egindako saioarekin. Bertsoak osatzen neure burua nahiko ondo ikusi nuen baina gero



Asier Azpiroz eta Haritz Mujika, Donibane Garaziko finalaurrekoan kantari. Argazkia: bertsozale.eus

ASIER AZPIROZ

“Txapelketa hasi aurretik, finalaurrekoetara iristea sinatuko nuke.

Bi saioak gris samar atera zirenez, epel samar utzi nau txapelketak”

saioa etxean entzun nuenean konturatu nintzen gaiekin ez nuela asmatu. Gaia entzundakoan posizionatu beharra duzu, argudioak bilatu behar dituzu.... eta horretan ez nintzen fin ibili. Tenple onean hasi nintzen baina 8ko txikiko gaia adibidez, ez nuen ondo ulertu.

Esan dudana bezala, saioa orokorrean pattal samar atera zen eta ni ere ez nintzen oso gustura aritu. Txapelketa hasi aurretik, finalaurrekoetara iristea sinatuko nuke. Baina bi saioak gris samar atera zirenez, epel samar utzi nau txapelketak. Dena den, ez diot buelta gehiegirik eman. Bertsoan, bestela ere, ez naiz asko ibiltzen plazan. Umea jaio berri harrapatu nau gainera.

Ahal dudana ondoen prestatu dut txapelketa eta atera da atera dena. Kito.

Bertsolarien aldeko pankartak begi-bistakoak ziren Donibane Garaziko finalaurrekoan. Bertso-saioak pilota partidaren itxura hartzen hasiak direla ematen du. Hori esanda, senideen zein lagunengan babesa izan duzu txapelketa osoan zehar, ezta?

Beti estimatzen da. Kasu honetan, Zubietako gazteak ez eh, 60 urteren bueltan dabilen jendeak egindakoa zen pankarta bat, eta asko estimatu nien gainera. Bestea nire lagunek eta ingurukoek egindakoa zen.

Pankartak beti egon dira txapelketaren bueltan eta uste dut ondo dagoela gainera. Oraingoz behintzat ez dago pilota partidaren inguruan sortzen den buila hori. Bertso-saioan isiltasuna galtzen badugu behintzat, gaizki ibiliko gara... Bertsozaleak joan behar du bertso-saioa entzuterako, ez bere laguna edo bere gertuko hori animatzera. Hooligan fenomeno hori oraingoz ez da bertso

mundura iritsi eta ez dadila iritsi.

Txapelketa izaten den bakoitzean, talde bat elkartu ohi zarete Añorga aldean. Gaztelumenditarrek tarteko. Beñat Gaztelumendi finalerako sailkatu denez, elkartzen jarraituko duzue ala ez?

2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa garaian ere, Añorgan bildu izan ginen Beñat eta Unai Gaztelumendirekin. Aurretan Aitor Etxebarriazarraga ere dezentetan batu zaigu (gernikarra da baina Donostian bizi da).

Beñat Gaztelumendik aurrea egin duenez, saiatuko gara taldekako lan horri eusten. Zurekin aritu den batek aurrera egin duela ikusteak poza ematen du, egia esan.

Tolosaldeko jende batekin ere maiz batu naiz Zizurkilen, Amasan edota Asteasun. Oihana Iguaranekin, Beñat Iguaranekin, Unai Mendizabalekin... Hauekin ere tratatu pertsonal handia dut eta askotan batu naiz beraiekin.

“Denak ikusi nahi ditugu finalean baina finaletik zein kenduko ote genukeen esatera ez gara ausartzen”

**NOAUA! Emakumezkoak gero eta gehiago dira bertsolaritza. Eta finalean, hiru arituko dira estreinakoz. Txapelketako eztabaidagai nagusietako bat izan da haxe. Epaimahaia-
ren lana ere zailtzen jarri da inoiz edo behin. Barrutik nola bizi dituzue gai honen inguruko esamesak?**

Asier Azpiroz. Aurreko txapelketa nagusian, 2017koan, finalaurdenetatik finalaurrekoetara emakumezko mordo bat pasa zen baina finalerako Maialen Lujanbio bakarrik sailkatu zen. Kristalezko sabaiaarena maiz aipatu zen orduko hartan.

Askotan, aldaketak ez dira urtebete ematen baina orduko hartatik hona bost urte pasa dira eta aldaketa hori gauzatu dela esan daiteke. Plazan ere, egunerokoan, aldaketa hori eman den bezalaxe. Saio gehien kantatzen duten



Bilbokoa izan zen azken finalaurrekoa. Igande honetan jokatu da finala, Iruñeko Nafarroa Arenan. Argazkia: bertsozale.eus

ASIER AZPIROZ

“Plaza gehien kantatzen duten bertsolarien zerrenda osatzen hasi eta erdiak emakumezkoak izango dira. Datuek hori diote, zorionez. Beraz, aldaketa hori eman da jadanik plazan”

bertsolarien zerrenda osatzen hasi eta erdiak emakumezkoak

izango dira. Ez da iritzi bat. Datuek hori diote, zorionez. Beraz, aldaketa hori jadanik eman da plazan eta aurtengo finalean hiru emakumezko arituko dira. Eta gehiago izan zitezkeen. Oihana Iguaran eta Jone Uria, esate baterako, finalaren atarian geratu dira. Oso pozgarria da. Aldaketa baten seinale dela esango nuke.

Irungo saioaz ari bazara (finalaurreko horretan Ane

Labaka, Jone Uria, Maddalen Arzallus, Miren Artetxe, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina igo ziren oholtza gainera), puntuak baxu samarrak izan ote ziren, horrelako zerbait aipatu zen, ezta? Ez dakit. Akaso hala izango zen baina saioaren ondorenak ekarri zuena ez zitzaidan asko gustatu. Nire gauza izango da, baina askotan gauza kolektiboak eta gauzak pertsonalak nahasten ditugu. Bertsolari denak ikusi nahi ditugu finalean baina gero finaletik zein kenduko ote genukeen esatera ez gara ausartzen.

Uste dut orokorrean begiratu beharra zaiola txapelketa bati eta, orokorrean, plazan eman den aldaketa hori islatu egin dela bai finalean eta, batez ere, finalaurdenetan eta finalaurrekoetan. Eta datu horrekin gertatu behar gara.

“Finalean jende berria ikusteak poz handia ematen du”

NOAUA! Finalaren atarian gaude. Saio txukun baterako osagai ugari dago, ezta?

Asier Azpiroz. Dudarik gabe. Aurreko finaletik errepikatuko duten bertsolariak oso kontsagratuak dira. Urte asko daramatzate txapelketetan eta plazaz plaza. Beraien maila erakutsi dute eta finalean sartu dira.

Hiru aurpegi berri daude oraingoan, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Joanes Illa-

regi. Eta jende berria ikusteak poz handia ematen du.

Alaia txapelketa gehiagotan aritu izan da baina Nerea ere plaza asko egiten ari da; jende askorengana iristen den bertsolaria dela uste dut.

Joanes mutil gaztea da, nafarra. Oker ez banago, lehen aldia da nafar bat sartzen dena Txapelketa Nagusiko finalean meritu propioz, nolabait esatearren. Garai batean, 70eko eta 80ko hamarkadetan,

Nafarroatik bat sailkatzen zen automatikoki. Ez puntuazio orokor baten ondorioz. Beraz, Joanesena ere oso albiste ona da. Aldaketez hitz egiten dugunean, generoari begiratu behar zaio baina beste gauza batzuei ere erreparatzea ez dago gaizki. Finalerako oso talde polita osatu dela iruditzen zait.

Faborito nagusietako bat Maialen Lujanbio izango da. Hala

ere, txapelketa honetan oraindik ez dugu entzun. Aurreko txapelketaren garaile izatearren abantaila. Ez da erraza izango Lujanbioerentzat.

Ez da izango, ez. Plazan she-riff bat izan da azken urte luzeotan. Finalean kostatuko zaio akaso lur hartzea. Hala ere, faborito bera ikusten dut baina kontsagratu kuadrilla hori (Aitor Mendiluze, Amets Arzallus eta Sustrai Colina) gertu ibiliko da.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170
USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Hiru bertso-eskola daude Usurbilen

Bota Punttuba bertso-eskola

Usurbilgo bertso-eskola aspal-dian osatu zen. Eskolako martxa bolada batez etenda egon bazen ere, Santixabeletako bertso-paper lehiaketari eutsi zioten urte luzez. Duela bost bat urte ordea, talde berri bat elkartu zen eta bertso-eskolaren dinamika berreskuratu zuen.

Ostegun iluntzeetan, Potxoenean

Geroztik hona, ostegunero batzen dira Potxoenean. Inoiz edo behin kale egin badute ere, elkartzen jarraitzen dute. Ez da talde itxia. Alderantziz. Bertso-tan egiteko gogoz den herritar-rrak atea zabalik izango ditu. Hortaz, baten bat animatuko balitz, jar dadila egungo eskolako kideetako batekin harremanetan.

2018. urtean, Bota Punttuba taldearen martxa abiarazi berritan, Eli Pagola bertsola-



2017an, talde berri batek hartu zuen Bota Punttuba bertso-eskolaren ardura. Potxoenean batzen dira ostegunetan eta interesa duen edonork atea zabalik ditu. Argazkian, Iurgi Fuentes, Uxue Fernandez eta Aitor Agirre.

riarekin elkartzen hasi ziren. Pandemiak ordea bertso-eskolaren dinamika eten zuen. Gorabeherak gorabehera, elkartzen jarraitu dute. Gaur

arte. Une honetan, Aitor Agirre, Uxue Fernandez eta Iurgi Fuentes dira Bota Punttuba bertso-eskolaren bueltan dabilzan bertsozaleak.

Iurgi Fuentes, epaile taldean

Iurgi Fuentesez hain justu, epaile gisa jardun du Bertsolari Txapelketa Nagusiaren lehenengo fasean.

Gazte ugari ari dira Udarregi ikastolako bertso-eskolan



Ikasturte hasierako argazkia da hau. Xabat Illarregi bertsolari leitzarrak gidatzen du ikastolako gazte taldea.

Udarregiko bertso-eskolako kideak ostegunero batzen dira, 13:30etik 14:30ak bitartean, Xabat Illarregiren gidaritzapean. Lehen saioan 10 gazte batu ziren, “gehienak DBH1ekoak, baina baita LH4 eta

LH6koak ere”.

Josu Diaz de Otalora da eskola honetako sustatzaileetako bat. Ikasturte hasieran aditzera eman zigunez, “gazteen bertso-eskola 2017ko irailean jarri genuen martxan”.

Elkartzeari utzi badiote ere, Zubietan bada beste taldetxo bat



Miriam Arrillaga lau t'erdiko txapeldunari omenaldia egin zioten 2019ko abenduan. Zortzitan bertso-eskolako kideak kantari aritu ziren egun hartan.

Zortzitan bertso-eskola duela urte gutxi osatu zen Zubietan. Ostegunero batzen ziren baina pandemia iritsi zenean elkartzeari utzi behar izan ziotela adierazi digu Haritz Arrizabalagak. Santa Ageda bezperako

eskean parte hartzen zuten eta Santioetako bertso-saioa antolatzen zuten. Dena den, taldea ez da desagertu. Aurtengo jailetan, esate baterako, bertso-saioa antolatzeaz gain, gai-jartzaile lana ere bere gain hartu zuten.

Juan Bautista Urkia Portu 'Gaztelu', Aginagako bertsolari aiantzia

Juan Bautista Urkia Portu 1880ko apirilaren 30ean jaio zen Aginagako Gaztelu baserrian. Hortik ezizena. Adituen esanetan, "Txirrita eta Pello Errotarekin batera agian bere garaiko ospetsuena". XXI. mendean ordea, inork gutxik dauka gogoan.

Antonio Zavalak 'Gaztelu' liburua idatzi zuen 1966. urtean. Aginagako bertsolariaren pasadizo eta bertso ugari batu zituen bertan. Altxor handi bat. Liburuaren ale bat Sutegi udal liburutegian topatuko duzue. "Asko kantatu zuen bere denboran", dio liburuaren hitzazurrean. Udarregirekin abestu ote zuen, ezin jakin. "Gazteluk 15 urte zituela hil zen Udarregi bertsolari usurbildarra, beraz Gazteluk nekez egingo zuen Udarregirekin saiorik". Bertso-



Txirrita, Olegario eta Gaztelu bertsolariak (hurrenez hurren) Arrateko bertso saio batean. Urtea: 1915. Argazkia: Indalecio Ojanguren.

tarako afizioa etxetik zetorkion: Juan Bautista Urkia Zaldia Gazteluko Gorri izeneko bertsolariaren iloba baitzen. Bazuen ere beste osaba bertsolari bat, Aintzira deitzen ziotena.

Parrandazalea, 'mutilzaharra'...

Sagardozalea, parrandazalea, ezkongabea... Gazteluren bertsoetan umorea da nagusi. Ho-

rietako asko ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi transmititu ziren. Bertso-paperak ere idatzi zituen baina horietan batez ere estropadak izan zituen kantugai.

Gazte hil zen

Antonio Zavalaren liburuan jasoa datorrenez, buruko gaitz batek jota hil zen. 1934ko abuztuaren 10ean, 54 urterekin.

Txirrita eta Gaztelu, Azpeitiko Loiolan

Azpeitiko Loyolan bertsolariak izaten ziran urtero garai batean San Isidroan. Jesuiten etxeko leiho bana hartu ta handik aitzen ziran bertsotan. Urte batean honela aritu ziran Txirrita ta Gaztelu.

1/ Gazteluk:

Kabida ona dago
gure almagazetan,
Jaungoikoak graziya
eman digu ortan,
gizon azkarrek dira
estudioetan,
gure kolejiyuak
sagardo-tokietan.

2/ Txirritak:

Laguntza izan banu
abogautzarako,
izketan ez ninduen
inork arrapako,
zenbat gizon-gai atzera
pobria dalako,
ondo bizi nai ta ezin,
bada lana pranko.

3/ Gazteluk:

Gogorik bai al dezu
zuk Loyolarako?
etxera jua baño len
ez al deu probako?
premiya badegu ta
konfesatutzeko,
biok gerako al gera
bost bat eguneko? (1)

4/ Txirritak:

Etxera jua biet
kasikan penetan,
gauza ori egin biar
genduke benetan,
edadia baukagu
formaldutzekotan,
ni geldiko nitzake
morroi artzekotan

5/ Gazteluk:

Mirabe nai zenduke
etorri bakarrik,
zertan nekatzen zera
izketan alperrik?
etzayozu eragin
jendiai parrarik,
emen ez dute artzen iru
ankako morroirik. (2)

6/ Txirritak:

Iru anka makalak
gorputza sendua,
etxe ontan komeni da
burua sanua,
zuk esan dezun ori
ez da segurua,
artuko nauten edo ez
jakitera nua.

(1) Alegia, ejerzizioak egitera. (2) Zartutakoan makuluarekin ibiltzen zan Txirrita.

Au esan ta barrura sartu zan trago edatera, jende guzia parre-algaraz ari zan bitartean. Guk uste, Gaztelu etzan geldituko Txirritaren atzetik joan gabe.

Iturria: Txirrita liburua (Auspoa, 1962), Antonio Zavalak idatzia.

"Eztunak eman ezin du"

"Usurbil"ko elizan obraren bat egin zuten. Erretoreak pulpitotik deitu zuan, eliza guzian etxea zala, ta sakrifizio pixka bat egin bear zala elizagatik. Jendea oso ondo portatu zan, al zuanak al zuana ekarriaz.

Urrengo igandean, erretoarek bertsolariak jarri zituan, jendeari eskerrak emateko. Bertsolarietatik bat, Gaztelu zan, ta onela asiera eman zion bertso-saioari:

Bikario jaunak lengo jayian enkargu bat eman du,
nik aitzera dedanez publikuak sakrifizioa egin du;
guk e deseo bagendun baña polsak eztigu agindu,
intentziyua eduki arren eztunak eman ezin du

Ernietik bueltan

"Ernio"tik beerakoan, Iturriotz deritzaion basetxean sartu omen zan bazkaltzeko asmoz. (...) Begira jarrita, txoko batean, bere andregai izandakoa an ikusi omen zuan bere gizonarekin kafea artzen ari zala. Ordurako ezkondu baizan! Joan da berengana, ta ala dio gizonari, bizkarrean joaz:

- Zu, adiskidea: bertso bat kantatzeko libertadea emango al didazu?

- Bai, gizona; emango ez dizut ba! -erantzun besteak.

Emazteari begira, au abestu zuan gartsuki:

Esan zirazun nekazaritzan etzenduela etsiko,
denda koxkor bat ipiñi eta ez ote giñan biziko;
zazpi ministrok beartuta're ez niñuzula utziko,
kariño pila artu zirazun baña denbora gutxiko.

Emakumea gorri-gorri gelditu omen zan ta ango jendeak silla ta aulki-gañetan zutik jarrita txalotzen omen zuan Gaztelu".

Iturria: Gaztelu bertsolaria liburua (Auspoa, 1966), Antonio Zavalak idatzia.

Herria darien otarrak, guztion eskura



Partehartzaileek eskerrak helarazteko baliatu zuten Potxoenean eginiko ekitalditzoa.

650 Usurbil bizi egitasmoaren baitan, herriko ekoizle eta sortzaileen uztza biltzen duten otarrak etxeratzeko aukera izango dugu urte amaieran.

Udalak, Hurbilago elkarteak eta kulturguneak sustaturiko “650 Usurbil bizi otarra” izeneko ekimenara batu dira herriko lehen sektorean, zerbitzuetakoan edota sorkuntza diziplina anitzetan ari diren herrikideak. Haien produktuak herriarriaren eskura jarriko dituzte. Gogoan izan, herri honen identitate, balore, ondare eta proiektu eraldatzaileetan oinarrituriko turismo eskaintza sustatzea du helburu urrian aurkeztu zuten “650 Usurbil Bizi” proiektuak. Eskaintza ez da herrikan kanpora begirakoa, udalerrira barrura zuzendurikoa baita, “besteak beste, herrian daukagunari duen balioa aitortzea baitu helburu, tokioa den hori guztia indartzeko.

Otarrek ere helburu hori dute, hain justu: herriko ekoizle eta sortzaileen lana bultzatzea, haien produktuak eta sor-

OTARREN ZOZKETA

**Hurbilagoko saltokietan
10 euro xahutzen dugun
bakoitzean, trukean
txartel bat jasoko dugu**

men lanak otarretan bilduta”.

Abenduaren 30ean zozketatuko dira otarrak

Horretarako, erosketak egin beharko ditugu Hurbilagoren saltokietan. 10 euro xahutzen dugun bakoitzean, trukean zozketarako txartela izango dugu. Otarrak abenduaren 30ean zozketatuko dituzte eta biharamunean, hilaren 31n ospatuko den Hurbilago San Silbestre herri lasterketan banatuko dituzte egokitu zaien. “Kanpainak iraun bitartean, 650 Usurbil Bizi otarren eredu batzuk erakutsiko dira herriko merkataria eta ostalarien erakusleihoetan”, iragarri dute sustatzaileek.

Auzolanean bideraturiko ekimena dugu honakoa. Udarregi Ikastolako ikasleak otarrak produktuez hornituko dituzte, guztira ehun.

Otar hauetako produktuon atzean dauden aurpegiak dituzue ondoko argazkian. Egitasmoan parte hartu duten hainbat ekoizle eta sortzaile. 34 izan dira guztira.

Parte hartu dutenak

Aginaga sagardotegia, Edorta Agirre, Aialde Berri sagardotegia, Maider Alzaga, Ameba, Yolanda Arrieta Malaxetxeberría, Miroitz Arrospide-Arrozpide barazkiak, Andoni Arzaillus Sagardia, Ainara Azpiaz Aduriz ‘Axi’, Arrillaga-Txiki baserria, Basatxerri, Bordatxo Esnea, Jakoba Errekondo Saltsamendi, Elhuyar Fundazioa, Han Goiko arrautzak, Koldo Huegun Zapirain-Borda Txuri, Iñorkiñak, Ione Iruretagoiena, Natali Izagirre-Neona, Iruin sagardotegia, Jon Ostolaza Goñi, Joseba Tapia Usabiega, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Mimoz Koadernoak, Mihise, NOAA! Kultur Elkartea, Odolaren Mintzoa, Pako Orbegoza, Rukula, Saizar sagardotegia, Urdaira sagardotegia, Usurbilgo Sagastia-Sagarki, Viafara, Jose Mari Zaldua-Sari Frutak.

Haimar Zubeldia, Titant Desert-eko podiumean

Haimar Zubeldia txirrindulari profesional ohiak garaipen bikoitza erdietsi du Saudi Arabian. “Neom Titan Desert” izeneko lasterketan parte hartu du. Etapetako bat irabaztearekin batera, podiumean amaitu du txapelketa, bigarren.

Beñat Lizaso, finalean

Pilota Egokituko Espainiako 2. Txapelketaren finalerako sailkatu da Beñat Lizaso usurbildarra. Igande honetan, abenduaren 18an, jokatuko du partida eguerdiko 12:00etan hasita Iruñeko Labrit pilotalekuan, binaka, Basauriko Gaizka Fernandezekin gurpildun aulkiko gomazko paleta modalitatean. Joseba Lasa eta Edorta de Anta nafarrekin lehiatuko dira. Pagazpetik ohartarazi dutenez, finala zuzenean ikusi ahalko da laligasport.tv aplikaziotik.

Pagazpeko hiru ordezkari

Sei bikotek parte hartu duten txapelketaren final honen atariko neurketa abenduaren 4an jokatu zuen Eibarko Astelena pilotalekuan. Pagazpe elkarteko hiru kideek parte hartu zuten: Lizasok berak, German Elkorok eta Aingeru Semperenak. Elkorok eta Semperenak binaka.



Igandean jokatuko dute Labriten. Interneten ere eskainiko dute.

Zaintzari lotutako hitzaldia

Zaintza ekosistema eredu propioa eraikitzeke herri hau jorratzen ari den bidearen baitan, azaroan abiatu zen hitzaldi zikloak segida izango du ostegunean. “Zer dira zaintzen

duten herriak? Egunerokotasuna erdigunean jartzeko hirigintza” mahai ingurua antolatu dute abenduaren 15ean 18:00etan Potxoenean.

Emagin elkarteak eta Usur-

bilgo Udalak antolatutako bilgo saioak hizlariok bilduko ditu: Oihane Ruiz arkitektoa, Col·lectiu Punt 6 kooperatiba eta Nora Erdozia Usurbilgo Udaleko arkitektoa.

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.
Herri bat BERRIAren kulturaren plazan.



Izan BERRIALagun **6 hilabetez 50 euroan** eta eraman BERRIAren agenda opari

Asteko
ikuspegia



Bietako bat
aukeran



Eguneko
ikuspegia

Berria.eus/berrialaguna

* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

berria zuk badakizulako



Ondo-pasa
gabonetan!

OLARRONDO JATETXEA

ABENDUAREN 25a eta
URTARRILAK IREKIA!

MENUA:

Aperitiboa

Urdaiazpikoa (ezkur iberikoa)

Boletus beteriko bolobana

Whisky erara otarrainxkak limoizko ali-oliarekin

Entrekota parrilan, pikilo konfitatuekin

Beltz Txokolatezko brownia,

Madagaskarreko bainilazko izozkiarekin

Edaria eta kafea

64€

SEZ BARNE

626 686 036 @OLARRONDOJATETXEA



**Gabonetako apaingarri eta
dekorazioan aukera zabala!**

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Euskaraldia gala eder batekin agurtu zuten



Oholtzan izan ziren Esti Markez, Axier Aranguren, Xabi Solano, Ugaitz Agirre, Ane Lindane eta Alberto, besteak beste.

Late Night Gala bikaina boroildu zen abenduaren 3an Aginagako Eliza Zaharrean Euskararen Eguna ospatu eta

Euskaraldiari agur esateko. Galan denetariko artistak izan ziren: musikariak, monologistak, zirkua, magoak.... Ia bost

orduko ikuskizunean barrerik eta harridurarik ez zen falta izan.

Oholtzan izan ziren Esti

Markez, Axier Aranguren, Xabi Solano, Ugaitz Agirre, Ane Lindane eta Alberto, besteak beste.

Ekimen gehiago Eliza Zaharra elkargunean

Abenduak 15, osteguna

■ 18:00 "Aginaga Biziberritzen" aurkezpen herritarra. "Aztikerraren laguntzaz egindako herri inkestaren ondorioen eta 2023ko urratsen aurkezpena".

Abenduak 17, larunbata

■ 18:00 Adinekoentzako gua-

tekea! Mariatxiak eta aspaldi-ko abesti dantzagarriak.

■ Sarrera: doan.

Abenduak 21, asteazkena

■ 18:00 Talo eta txistor jana Aginagako Eliza Zaharrean. "Bakoitzak bere taloa egiten ikasteko aukera izango du eta

ondoren, talo-jana!".

Abenduak 23, ostirala

■ 18:00 Olentzeroren etorrera Aginagara. "Sekaña eta Mitxerkoneko gurutzetatik behera etorriko da Olentzero haurren eskutitzak jasotzera Eliza Zaharrera".

Abenduak 24, larunbata

■ 09:00 Kantu-jira etxez etxe elizatik abiatuta. 15:00ak alderako Aginaga Kaxkoan.

■ Antolatzailea: Katekesi taldea.

Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.

San Tommas eguna

Abenduaren **18an**
igande goizez

Babarrun eta sagardo lehiaketa



- 11:30 AZOKAREN IREKIERA eta USURBILGO SANTOMAS
BABARRUN ETA SAGARDO LEHIAKETA
- 12:00 **IXABEL AGIRRESAROB**ekin UMEENTZAKO IPUIN KONTAKETA
13:30 SARI BANAKETA
- Sagardo dastaketa, bertako produktuen **azoka** eta **talloak**, **gaztain**
erreak eta **gozogintza** postuak
- 17:00 **ORKESTRA LURTARRA** FILMA (haur eta gaztetxoentzat)



noia



Basque Country

San Tomas azoka ate-joka

Abenduaren 18an ospatuko da Usurbilen urtero antolatzen duten San Tomas azoka. Postu ugari jarriko dituzte janaria, edaria eta bestelako artisauek euren produktuak saltzeko. NOAUA! Kultur Elkartek antolatzen duen babarrun eta sagardo txapelketarik ere ez da faltako aurten. Izen ematea bukatu berri da parte hartu nahi dutenentzat.

San Tomas egunean, sagardoa edan eta taloa bezalako produktuak jateko aukera ere izaten da. Herriko eta herritik kanpoko elkarte eta artisauek euren produktuak jarriko dituzte salgai egun horretan frontoian. Haien berri izateko, Alkartasuna Kooperatibako Asier Kortadiri eginiko elkarrizketa jaso dugu orrialde honetan.

Babarrun eta sagardo lehiaketak

Sagardo txapelketan ez da profesionalik arituko, sagardoa



NOAUA! Kultur Elkartek antolatzen duen babarrun eta sagardo txapelketarik ere ez da faltako aurten.

IGANDE HONETAN

“Herriko eta herritik kanpoko artisauek euren produktuak jarriko dituzte salgai igande honetako azokan”

etxean egiten duten usurbildarrentzako lehiaketa izaten baita. Parte hartu nahi dutenek, NOAUA!ren egoitzan 8na botila utzi dituzte azokan hiru onenak erabaki ahal izateko. Xabier Izetari, joan zen urtean sagardo lehiaketan hirugarren

saria irabazi zuenari eginiko elkarrizketa hurrengo orrian aurki daiteke.

Babarrun txapelketarako ere izen ematea jada amaitu da, NOAUA!n hainbat babarrun-zalaren jeneroa bildu dute. Babarrunik onena aukeratzeko produktuaren ezaugarri batzuk hartzen dira kontuan: itxura aldetik ea osorik dagoen, hautsita, zimurra...; kolore aldetik ea argiagoa edo ilunagoa den, zenbat eta ilunago, orduan eta hobeago; aleak elkarren artean ahalik eta antzekoenak diren

tamainaz, kolorez...; dizdira egiten duen produktuak inolako produktu gehigarririk jarri gabe (olioa, dizdiragarria...), tranpa egiten dutenak lehiaketatik kanpo geratuko dira; eta azkenik, garbitasuna, partikula arrotzik ea baduen, zenbat eta txukunago hobe.

Sariak

Lehen saridunek 150 euro eta txapela eskuratuko dituzte, bigarren saria lortzen dutenek 90 euro eta kopa, eta hirugarrenek 50 euro.

Maria Angelesi babesa adierazteko mobilizazioa

Igande honetan 13:00ean, San Tomas azokan, Dema plazan. Agerraldia eta prentsaurrekoa deitu ditu 80 urteko herrikideari babesa adierazi, berea duen bizilekuan gera dadin lagundu eta etxegabetzeak salatzeko sortutako herri bilguneak.

“Gabonak gainean ditugunez, elikagai asko saltzen ditugu”

Asier Kortadi Alkartasuna Kooperatibako zuzendaritza batzordeko kidearekin izan da NOAUA! datorren San Tomas azokan jarriko duten postuaren gaineko informazioa biltzeko.

NOAUA! San Tomas azokan postua jartzeko asmoa al duzue?

Asier Kortadi: Bai, joan zen urtean ere jarri genuen eta aurten ere bertan izango gara.

Zer eramango duzue azokara?

Urtero antzeko produktuak eramaten ditugu. Urte sasoiak ikusita, egutegia eta argitaratzen ditugun liburuak izango dira bertan: Bizi Baratztea, sendabelarre buruzkoa, agenda... Horrez gain, gure produktuak ere



Fruta zuhaitzek indar handia hartzen dute sasoi honetan.

izango ditugu: ardoak, zukuak, pasko lorea... garai honetako produktuak, orokorrean.

San Tomas azokan zer da gehien saltzen dituzuen produktuak?

Gabonak gainean ditugunez,

elikagaiek indar handia hartzen dute: turroiak, intxaurrak, edariak... Neguan sartuko gara, eta beraz, pentsua erosten dute askok animalientzat, bai eta erregaiak ere: butanoa, gasoila... Fruta zuhaitzek ere indar handia hartzen dute

sasoi honetan eta datozen hila bateetan.

Urtea amaitzera doa. Aurtengoaren nolako balantzea egingo zenukete?

Joan zen urtearekin alderatuta ez dugu aldaketa berezirik nabaritu. Fakturazioari erreparatuta, goranzko joera dute, baina horretan eragin nabarmena du inflazioak. Berdina salduta, askoz gehiago ari gara fakturatzen, inflazioaren igoera izugarri honekin produktu batzuetan izugarritzko prezio igoera izan da, eta gasoila bezalako produktuetan ia bikoiztu ere bai. Hala ere, salmenta kopuruari erreparatzen badiogu, joan zen urteko kopuruaren oso antzekoa izango da.

Xabier Izeta: “Garbitasuna oso garrantzitsua da sagardo on bat lortzeko”

Oiloki baserriko Xabier Izetak joan zen urteko sagardo lehiaketan hirugarren postua irabazi zuen. Aurten ere parte hartzekoa da, eta NOAUA!rekin partekatu ditu aurtengo aurreikuspenak.

NOAUA! Noiztik parte hartzen duzu San Tomaseko lehiaketan?

Urte dezente daramatzagu parte hartzen. Ez nago ziur, baina esango nuke 2004an hasi gine-la, eta urtero hartu dugu parte bi urtetan izan ezik. 2005ean txapela eskuratu genuen, duela 4 urte bigarrenak izan ginen eta kopa txiki bat eman ziguten, eta joan zen urtean hirugarren postua lortu genuen.

Etxean betidanik egin izan duzue sagardoa?



“Urte dezente daramatzagu sagardo lehiaketan parte hartzen”.

Rikardo anaiagatik hasi ginen sagardoa egiten baserrian. Hark bultzatu gintuen hastera, hura oso zalea baita. Duela 20

bat urte izan zen hori. Lehenago ez geneukan ohiturarik sagardoa egiteko.

Ze itxura du aurtengoak?

Aurten sagar gutxi izan da eta horrek ondorioa du azken emaitzan. Dena den, San Tomas azokara eramango duguna joan zen urtean egindakoa da.

Zein da sagardo ona egiteko sekretua?

Beti entzun izan dut garbitasuna oso garrantzitsua dela sagardo on bat lortzeko. Prozesu osoan zehar mantendu behar da garbitasuna: sagarra bera, tolarea, ingurua, botila... Gertatzen da batzuetan sagardo bera botila ezberdinetatik hartu eta bat oso ona ateratzen da eta bestea berriz oso txarra.

LAN DEIALDIA - TURISMO DINAMIZATZAILEA

650 Usurbil Bizirik turismo eredu berrian dinamizatzailearen bila gabiltza. Noaua! K.E.-n lanaldi erdiko urtebeteko kontratua eskaintzen da (2 hilabeteko frogaldia).

Betebeharrak:

- Diplomatura edo gradu baten jabe izatea. Turismo, Kultura, komunikazio edo jarduera soziokulturarekin lotutakoak (erlazionatutako masterra edo postgradua ere onartuko dira) edo
- Beste diplomatura baten jabe izanik, prestakuntza osagarria edo esperientzia izatea kultura, ondarea eta turismo alorrean.
- EGA edo baliokidea izatea.

Baloratuko dira:

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.
- Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeako gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea.
- Herrigintza esperientzia izatea.
- Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialeen kudeaketan ezagutza izatea.

Interesatuak bidali curriculumak elkartea@noava.eus helbidera
2023ko urtarrilak 9 baino lehen.

**INFORMAZIO
GEHIGO**

Hurbilagoren azoka, eguzkiaren gozotasunean



Abenduko lehen igandean ospatu zen azoka eta jende ugari batu zen frontoi inguruan.

Hurbilagoren azoka izan zen abenduko lehen igandean Dema plazan eta frontoian. Lizardi, Marije, Otari Goxo, Ione Iruretagoiena, Kool Studio, Ama eta biok, Kaori Hamarratz, Urluma, Gigil, Mikka Pika, Tilin Talan, SendaGaia, Amlu, Hyle Zizka Mizka, Jose Ramon, Errasti Ogia, Suma

Flowers, Puochinah, Koloreztatu Berexi Art, La Marieta Tea, Amesgile eta Krysia izan ziren parte hartzaileak. Haurrentzat tailerra eta ipuin kontaketa ere egin zituzten.

Abendu amaierara arte

■ “650 Usurbil Bizi” otarraren zozketan parte hartzeko

aukera. Gutxienez 10 euroko erosketak egin beharko dira abenduaren 30era arte, Hurbilagoren saltokietan.

Abenduak 31, larunbata

■ 17:00 Hurbilago San Silbestre lasterketa frontoitik.

■ Izen-ematea: egunean bertan edo gertuago.eus atarian doan.

■ Lasterketa amaieran:

-Oparien banaketa lasterkarien artean.

-“650 Usurbil Bizi” herriko ekoizle eta sortzaileen produktuez hornituriko otarren banaketa (zozketa bezperan).

■ Antolatzailea: Hurbilago Usurbilgo ostalarien eta merkatarien elkarte.

Errausketaren aurkako aldarria



Buruntzaldeko Ernaik Borroka Astea antolatu zuen. Ekitaldietako bat Potxoenean egin zen, “Errausketarik ez!” lelopean. Erraustegiaren gaineko datuak, hartutako erabaki politikoak eta gizartean izan duen eragina izan zituzten hizpide.

‘Luze edo Motz’ Txokoargin



Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena Txokoaldeko Txokoargin izan ziren aurreko astean. Hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak, sexua... izan zituzten hizpide. Kritika eginez, dese-raikiz eta barre eginez bazterrak zirikatzen jarraitu zuten.

Andatzako indusketa lanak



Andatzan azken bi urteotan egindako indusketa lanen berri eman zuten hilaren lehenengo egunean Sutegin. Irigainen, Txangostan eta Andatz III izena duten eremuetan ibili dira lanean Aranzadi zientzia elkarte eta baita hainbat herritar ere.

‘Lehendakari gaia’ Eliza Zaharrean



Zuhaitz Gurrutxagak eta Iker Galarragak antzeztutako “Lehendakari gaia” antzezlana egin zuten igande arratsaldean Aginagako Eliza Zaharrean. Goraino bete zen Eliza Zaharra eta barre-rik ez zen falta izan antzeztanak iraun bitartean.

Etumeta euskaltegikoak, Txokoaldeko Txalaparta Txokoan



Azaroaren 30ean Txalaparta Txokoan izan ziren, bisitan.

Etumeta AEK euskaltegiko lagunak Txalaparta Txokoan izan dira bisitan. "Bertako Harkaitz Martinez de San Vicentek ongietorri atsegina egin zigun, kafea barne. Horrez gain, azalpen argiak eman eta txalapar-

ta egiteko eta jotzeko zenbait material erakutsi zizkigun", NOAUA!ri igorritako idatzian azaltzen denez. "Goiko solairuan, berri, munduan zehar ibilitakoak izanda, musika-tresna bitxiak erakutsi zizkigun.

Intza Bengoetxea, Hauspoz akordeoi jaialdian saritua



Argazkian Intza Bengoetxea bere irakasle Joxean Anduagarekin.

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkartek urtero Arrasaten antolatzen duen Gipuzkoa XXXIV. Akordeoi Jaialdian, A mailan, zilarrezko domina irabazi zuen Intza Bengoetxea

Zumarteko ikasleak. Intzak 29 puntu lortuta irabazi zuen zilarrezko domina, eta derri gorrezko obra jotzeaz gain, herrikoia den Andre Madalen fandangoa ere jo zuen.

Urrutira heltzeko modu bakarra dago. Hurbil egotea.

Gero eta gehiago bizi gara eta nola zahartu erabaki nahi dugu. Gipuzkoako Foru Aldundia zainketen etorkizuna lantzen ari da Etorkizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gero eta zaintza pertsonalizatuagoak, komunitateari lotuagoak daudenak eta berritzaileak. Datozen 8 urtetan 39 jarduketa garatuko dira zaintzen duen eta nola zaindua izan nahi duen erabakitzen duen lurraldea izateko. Gure etorkizunaren alde lantzen ari diren gizarte-politikak, orain.

Etorkizuna Orain.

etorkizunaeraikiz.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia

ETORKIZUNA GRAIN



Green Fashion

GIPUZKOA KLUSTERRA
GIPUZKOAKO MODA IRAUNKORREKO KLUSTERRA
CLÚSTER GUIPUZCOANO DE MODA SOSTENIBLE

Gabonetarako prestatzen hasi dira Santuenean

Santuenean ekitaldiz beteta dator abendua Gabonetako ekintzeekin, bai eta beste hainbatekin ere.

Aurten ere, Gabonetako Azoka Txikia izango da auzoan, abenduaren 17an. Goizean irekiko dute azoka, joan zen urtean bezala, Santuenea Elkartearen aurrean dagoen kalean. Auzoko artista eta dendariak euren produktuak jarriko dituzte salgai edo erakusgai eta, bigarren eskuko produktuen karpa ere bertan egongo da joan zen urtean bezalaxe. Azoka egiten duten bitartean, jolasak eta tailerra egongo dira plazan haurrentzat. Xake ikastaroan aritu direnek ere izango dute euren espazioa azokan, plazako mahaietan elkarren aurka partidak jokatu baituzte. Arratsaldean, DJ Mendik hartuko du azoka eta inguruak girotzeko lana. 18:30etatik aurrera, Gabonetako kantak jarriko ditu Gabon giro horretan murgiltzeko eta Gabonetako zuhaitza piztuko dute.



Laster jarriko dute Olentzero auzoaren sarreran.

“Gabonetako Azoka Txikia abenduaren 17an ospatuko dute Santuenean”

Olentzeroren buzoia ere bertan egongo da haur eta gaztetxoek ikazkinari idatzitako gutunak uzteko.

Abenduak 21, asteazkena

■ 18:30 San Tomas Eguneke txistorra-banaketa, Santuenea 12 atarian, Dj Gorka Mendiren musikarekin.

Abenduak 24, larunbata

■ Olentzerorekin kantuan.

Olentzerorentzako gutun bilketa

Abenduaren 24an egingo zaio harrera Olentzerori Usurbilen, herritarrek, eragileek eta Udalak lankidetzan antolatutako hitzorduaren baitan. 17:00etan etorriko da Kalezar aldetik 18:00ak aldera Dema plazan izateko. Tarte horretan, kalez kale ibiliko da ikazkina, galtzagorriez inguratua. Adi, abenduaren 16tik aurrera, Olentzerorentzako gutunak biltzeko postontziak jarriko dituzte herriko gunen desberdinetan.

Zumartekoen urteko azken ekitaldiak

Abenduak 20, asteartea

■ 10:30 Zumarten “Eguneke Zentroko eta Eguneke Arretako gure adinekoekin”. Eraikinen bisita gidatua.

■ 11:00 Kontzertua ganbaran udaleko ordezkari eta senideekin batera.

■ 19:00 Abesbatzen kontzertua elizan.

Abenduak 22, osteguna

■ 19:00 Saxo Taldearen kale kontzertua.

■ Antolatzailea: Zumarte.

Euskal dantza tradizionalak

Orbeldiren eskutik

Larunbatean, abenduaren 17an 18:00etan Sutegiko auditorioan. “Emanaldi honetan Orbeldi Dantza taldeak euskal lurralde ezberdinetako dantza tradizionalak taularatuko ditu. “Jantzi ezberdinak ikusi ahal izango dira bertan”.

Hondakinen larrialdi guneak, telefono bidez irekitzeko aukera

Giltza fisikotik elektronikora jauzia egin du Udalak. Orain arte, hondakinen larrialdi guneak baliatzeko ezinbestekoa zen Atez Ateko bulegora joan eta giltza fisikoa eskuratzea. Aurrerantzean ez da halakorik egin behar; “Android zein iOS telefonoetan erabilgarria den aplikazio baten bidez, telefonoa erabili ahal izango du giltza be-

zala”. Halere, Udaletik ohartarazi dutenez, “giltza fisikorekin jarraitu nahi duenak ere horretarako aukera izango du”.

Giltza elektronikoa baliatu nahi duenak “Atez Ateko bulegorekin telefonoz (900 776 776) edo Whatsapp edo Telegram (606 501 024) bidez jarri behar dute harremanetan: erabiltzeko baldintzak betetzen

badira, eta aplikazio hori instalatuta, Atez Ateko bulegoak larrialdi gunea telefonoarekin irekitzeko baimena izango du”.

Guneok erabiltzeko baimena dute batetik, landa eremuan bizi direnek, atez ate bilketa zerbitzurik jasotzen ez dutelako. Baita bilketa sistema honetara egokitu ezin dutenak, “larrialdi edo salbuespen egoe-

rak medio”. Egoera guztietan ziren herritarrek ezinbestekoa zuten larrialdi guneetara sartzeko giltza eskuratzea. Landa eremuko kasuan aski zuten behin eskatuta, “baina salbuespenez erabili behar dutenen kasuan, beharrezkoa zen Atez Ateko bulegora joatea”. Kasuotararako alternatiba erosoago bat eskaini nahi izan du Udalak.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

ORBITA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

“Txokoalderekiko begirunea eskatzen dugu”

Usurbilgo Udalak eta Txokoaldeko bizilagunek hobekuntza sorta aurkeztu diote, Eusko Trenbide Sareak tren zerbitzuen maiztasuna indartzeko egin asmo duen tunelaren proiektuari.

Eusko Trenbide Sareak (ETS) tren zerbitzuen maiztasuna handitu nahi du; ordu erditik hamabost minutukoa izatera igaro nahi du. Horretarako ordea, 1,2 kilometroko tunel bat eraiki asmo dute Olabarieta-Illunbe artean, Txokoalde inguruan eta tarte horretan trenbidea bikoiztu, trenak gurutzatu ahal izateko. 30 milioi euroko egitasmoa, eta hiru urteko lanak. “Proiektuaren asmo eta helburuekin bat egin dugu, egungo tren azpiegitura eta zerbitzua hobetzea dakarrelako baina horretan alde egoteak ez du esan nahi, gaur egun proiektua eta obra bera planeatu den bezala ados gaudenik eta horregatik alegazio ugari aurkeztu ditugu”, zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak hilabete hasieran Txokoalden egin zuten agerraldian.

Udalak eta auzoko bizilagunek batera alegazio sorta aurkeztu dute; “Txokoalderekiko begirunea eskatzen dugu, eta Usurbilekiko begirunea ere”.

“Gure ekarpenak aintzat hartzeko eskatu nahi diogu ETS-ri”

Ez da Udalak alegazioak aurkezten dituen lehen aldia. Udalean 2008an jaso zuten lehen aldiz egitasmo honen berri, baina oraingoan bai, gauzatuko dutela dirudi. ETS-rekin ere bildu izan dira, “baina gure eskakizunak ez dituzte aintzat hartu eta guretzat bada etsigarria”. Oraingo honetan auzotarrek bildu da Udala alegazioen berri emateko. “Bat egin dute gure ikuspegiarekin”.



Obrek ingurumeneari eta txokoalderaren egunerokoan izango duten eragina gutxitzeko hainbat alegazio aurkeztu dituzte.

TXOKOALDEKO ZUBIA

“Zubia konpontzen ez bada, kamioi astunak ez dute bertatik igarotzeko baimenik izango” eta ezingo da obra egin, sarbide bakarra baita zubi hau. “Orietik ezin da irisi tunelera”

Sei hobekuntza aurkeztu dizkiote; bost Udalak eta seigarrena Txokoargi elkartearen izenean, auzoko bizilagunek. “Bat egin dugu Udalak planteatutako alegazioekin eta Txokoargiren izenean alegazio bat prestatu dugu guk ere eta sinadurak bildu. Jakin badakigu halako obra batek eragina izango duela auzoaren eguneroko bizitzan baina gure ekarpenak aintzat hartzeko eskatu nahi diogu ETS-ri, Txokoaldekin merezi du eta”.

Bi helburu betetzeko aurkeztu dute segidan datorren eskakizun sorta; obrek ingurumeneari eta txokoalderaren egunerokoan izango duten eragina gutxitzeko.

ETS-ren proiektuari aurkezturiko hobekuntzak

1- Txokoaldeko sarrera-irteerak hobetzea

Kezka eragiten duen aspaldiko eskakizuna; N-634 errepidetik auzora jaisteko nahiz alderantzizko bidea egiteko sarrera nahiz irteera gunea. “Udalak urteak darama hobetzeko eskatuz”. Alternatibak proposatu arren, ez dute erantzunik jaso. EAE-ko errepede planean jaso dago Txokoalderako sarbidea eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko biribilgune bat eraikitzea Galardin, N-634 errepedeko gasolindegian, “Udalak bere garaian egindako alegazioei esker”.

Oraingoz ordea ez da egitasmoa gauzatu eta trenbidea bikoizteko obrek egoera okerragotu dezaketela ohartarazi dute Udalak eta auzotarrek. Lehendik ere ibilgailuen joan etorri handiari, “gehitzen badiogu obra honen ondorioz egunerokoan egongo diren joan etorriak, benetan iruditzen zaigu arrisku egoerak une oro eta etengabe sortuko direla”. Ez baita ahaztu behar, Txokoaldekoentzako autobus geltokia Galardin dagoela eta “egunero hamarnaka kamioi ibiliko dira eta gure ustez ez daude gutxieneko segurtasun baldintzak bermatuta”. Horregatik, trenbidea bikoizteko lanei ekin aurretik, “egoera horri soluzio bat ematea” eskatzen dute, erakunde arteko mahai bat osatzea galdegin dute,

Eusko Trenbide Sarea, foru eta udal ordezkariak eta Txokoaldeko bizilagunak partaide izango dituen.

2- Altzonazko zubia konpontzea

Zubi hau konpontzea eskatu dute. Oria zeharkatu eta Txokoalde Aginagarekin lotzen duen zubia berritzeko milioi bat euroko proiektua eskuartean du Udalak, baina “ate ezberdinak” jotzen aritu arren, “orain arte inork ez du boron-daterik agertu Udala laguntzeko” Usurbilgo alkateak azaldu zuenez. Ondorioz, Altzonazko zubia egoera onean ez dagoenez, egun 12 tona baino gehiago pisatzen duten kamioiek ezin dute lotune honetatik igaro. Trenbideko proiektu honi begira ere, argi adierazi du alkateak; “zubia konpontzen ez bada, kamioi astunak ez dute bertatik igarotzeko baimenik izango” eta ezingo da noski obra egin, sarbide bakarra baita zubi hau, “Orietik ezin da irisi tunelera”.

Alkateak argitu duenez, Eusko Trenbide Sareak zubia konpontzeko borondatea agertu du ahoz, “tunelaren obra eraikitzeko baldintzak eta baimen guztiak” eskuratutakoan. Ahoz adierazitakoa idatziz jasotzea eskatu dute.

3- Tren pasabidea ezabatzea

Ezabatu edo gutxienez egungo “sistema aldatzeko” eskaera egin dute Txokoalden, proiektuan ez baitaio gai honi aipamenik egin. Auzoaren eguneroko bizi-kalitatean eragin nabarmena du, gune arrisku-tsua da eta are arriskutsuagoa bizilagunen segurtasunerako izan daiteke etorkizunean, trenbidea bikoizteko eta tunelaren proiektua gauzatzen denean, tren maiztasuna areagotzen badute. “Honi soluzio bat ematea exijitzen dugu, alternatiba bat eskaintzea”.

Hainbat proposamen, Txokoaldeko bizilagunen mesedetan

4- Obrarako bide alternatiboa eta etorkizuneko bidegorria

Tunelaren obretara joan etorriak egiteko bide alternatibo bat egokitzea eskatu dute, “trenbidea gurutzatu aurretik, aparkalekutik, trenbidearen paralelo eta erriberatik”. Proiektuak aurreikusten duena baino aukera jasangarriago, seguruago, teknikoki errazago eta merkeagotzat jotzen dute. Hartara, lanean ari diren artean Txokoaldek pairatu dezakeen eragina “nabarmen murriztuko litzateke”. Sarbide alternatibo hau baliatuta, trenbidea ez lukete zeharkatu beharko kamioiek, bizilagunen bidea ere ez lukete erabili behar izango eta ez lukete zeharkatuko “Guardetxea, Irisasi eta Illunbe baserriak”. Eta bi tren pasagune ezabatuko lirateke. “Lursailetarako sarbideak ez luke trenbidea zeharkatuko”, sarbide “egokiago eta seguruagoa izango lukete lurjabeek”.

Bide alternatibo hau bizikleta bide gisa erabili ahaliko litzateke etorkizunean. “Modu horretan Usurbilen, Santueneatik Olabarrietarainoko bidegorria lotu ahal izango litzateke. Beraz, obrarako egin beharko litzatekeen bideak bidegorri izaten bukatu beharko luke obraren amaieran”. Hain zuzen agerraldian gogorarazi zutenez, “tunelaren lanek lotura zuzena dute 2013an Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin behingoz onartutako Gipuzkoako bizikleta bideen lurraldeko arloko planarekin”. Trenbidearen trazatua berrerabili nahi dute bizikleta bidea egiteko “eta modu horretan Usurbil eta Orio lotu”. Horregatik, diotenez, “dei egiten diegu bi erakundeei, ETS-ri eta Gipuzkoako Foru Aldundi-ko mugikortasun departamentuari modu koordinatuan aritu daitezela eta tuneleko obrak baliatu ditzatela, jarraian bidegorriaren proiektuari ekiteko”.

Egin asmo dutena astakeria



Udalak eta Txokoaldeko bizilagunek hobekuntza sorta aurkeztu diote Eusko Trenbide Sareari.

TREN GELTOKI ZAHARRA

Tren geltoki zaharra berreskuratzea eskatu dute, “Txokoaldeko eta Aginagako bizi baldintzak hobetu eta autoarekiko dagoen ezinbesteko dependentzia murrizteko”

dela deritzote. “Eskuartearen dugun proiektuak aurreikusten duen bidea da tren pasabidea gurutzatu, tren geltoki eta Illunbe baserritik barrena iristea obrara. Gure ustez, aukera hau astakeria galanta da, bai segurtasunaren ikuspegitik kamioiak auzora sartzea suposatzen duelako eta bira egiteko nahikoa leku ez dagoelako. Pisu handiko ibilgailuentzako ez da egokia, biraketa erradio oso estua luke. Bost metroko zabalera duen bidea proiektatzen dute eta horrek ingurua txikitzea ekartzen du”.

Eta auzoari nabarmen eragingo lioke. “Apeaderoaren parean bidea oso estua da, eta dimentsio handiko ibilgailuak pasatzeko arazoak aurreikusten dira. Illunbe baserria, lehenatasunezko interesa duen ondasun higiezin bezala kalifikatua, kaltetua suertatuko litzateke, obrarako sarbidea litzatekeen bidearen zabalera etxe atariraino iristen delako. Guardetxe parean, interes etnografikoa duten mugarriak eta natur interesa duen haritza dago”.

5- Geltokia berreskuratzea

Trenbidean gauzatu nahi duten proiektuak ahalbideratuko lukeelako, tren geltoki zaharra berreskuratzea eskatu dute, “Txokoaldeko eta Aginagako bizi baldintzak hobetu eta autoarekiko dagoen ezinbesteko dependentzia murrizteko”. Geltokia, eta noski, tren zerbitzua bera berreskuratzea galdegin dute. “Ez dugu eskatzen maiz-

tasun guztietan trena geratzeko, baizik eta ordu jakinetan. Txokoaldeko auzotarrek obra honekin sufitutuko dutena asko da eta giza legezkoa ere bada, konpentsazio moduan bada ere neurri hau hartzea, Txokoaldeko bizilagunen mesedetan”.

6- Ingurumen eragina murriztea

Eskaera honi begirako zenbait neurri proposatu dituzte. “Esaterako, ekialdeko tunelean, jarduketa azalera ahalik eta gehien mugatzeko eskatzen dugu eta neurri zuzentzaile moduan, hango ekosistema lehengoratzeko eta kontserbazio neurriak hartzeko. Bertan baso misto bat birlandatzeko ere eskatzen dugu eta erre-kastoko altzadi kantauriarra sustatzeko, modu horretan, bertako ekosistema naturalizatu eta Natura 2000 sarearekin lukeen konektagarritasun ekologikoa ere hobetuko litzatekeela uste dugu”. Hori ekialdeko tunelean, mendebaldekoan “dauden hezeguneak kontuan hartuz, eskatzen duguna da hezeguneen babeserako lur-zoru ez urbanizagarri berezian eta interes naturalistiko handia duten eremu batean kokatzen denez, bestelako alternatiba batzuk aztertzea”.

Alternatiba zehatzik ere proposatu dute; “aztertzea ea trenbidea eremu horretan lurperatuta igaro daitekeen, gure aburuz alternatiba hau kontuan hartu beharko litzateke. Eta alternatiba hori ezinezkoa balitz, eskatzen duguna da egungo zubiak hezegunean izango duen eragina ahalik eta gehien murriztea, Oria ibaia eta hezegunearen arteko konektagarritasuna hobetu ahal izateko. Mendebaldeko tunelaren sarbidean dagoen haritzia gainera, balio ekologiko nabarmeneko da, eta inpaktua ahalik eta gehien murriztu beharko litzatekeela ulertzen dugu”.

Jone Allur: “Euskal Etxera hurbiltzen naizen bakoitzean etxean bezala sentitzen naiz”

Argentinara eraman dute ikasketek Jone Allur herritarra. Politika eta soziologia ikasten ari da eta Argentinan izugarrizko aberastasuna aurkitu du gai horiek landu ahal izateko.

NOAUA! Argentinako La Plata hirian zaude. Zer egiten duzu han eta noiz joan zinen?

Jone Allur: La Plata hiria Buenos Aires probintziako hiriburua da. Urtebeterako etorri nintzen hona uztailaren amaieran ikasketekin jarraitzeko asmoz. EHUK Bilbon duen kanpusean soziologia eta zientzia politikoak ikasten ari naiz. Behin hona iritsita, soziologian jarri naiz burubelarri bertako unibertsitatean. Martxa honetan jarraituko dut 2023ko uztailera arte.

Soziologiari heldu diozu orain, zail egin zaizu ikasgai berak topatzen?

Joaterako ikasgaien zerrenda bat osatu nuen berdinak edo ahalik eta ikasgai antzekoenak hautatu ahal izateko. Kredituen kontuarekin ere komeriak izan nituen hemen ez baitute modu horretan funtzionatzen, ordukin baizik. Etxean egin-



2023ko uztailera arte Argentinan izango da, La Plata hirian. “Soziologia ikasten jarri naiz burubelarri bertako unibertsitatean”.

JONE ALLUR, ARGENTINAN

“Urtarrila eta otsailean uda bete-betea egongo gara eta momentu ezinhobea izango da bidaiatzeko”

dako plantilak ez zuen ezertarako balio izan ordu gehiegi baitziren. Behin hona iristean

behar nituen hautaketak egin nituen eta baiezkoa eman zidaten Bilbon. Ez dut arazo gehiagorik izan horrekin.

Badaramazu denbora pixka bat La Platan. Inguruak ikusi eta bidaiatzeko aukera izan duzu?

Iritsi bezain pronto Uruguayra

bidaiatxo bat egiteko aukera izan genuen. Montevideo hiriburuan eta Kolonia hirian ibili nintzen, oso leku ederrak iruditu zitzaizkidan. Urrian Mendoza inguruak ezagutu genituen, Akonkagua eta Andetako mendikatea barne. San Luisera ere joan ginen. Leku zoragarriak horiek ere. Orain arte bizi izan dudana esperientziarik onena, berriz, San Luisen bizi izan nuen. 35. Nazioarteko emakume arrazantzen eta disidentzien Eguna tokatu zen eta Latinoamerikako emakume eta disidentzia pila bat elkartu ginen. Oraindik oilo-ipurdia jartzen zait egun hura gogoratzen dudanean. Kaleak emakume eta genero ezberdinetako pertsonez bete ziren. Hitzaldiak, asanbladak eta denetarikoz kontzertuez gozatzeko aukera izan genuen. Hausnarketarako oso garrantzitsua izan zen niretzat. Oso errealitate anitzak ezagutzeko aukera izan nuen. Zoragarria. Denbora asko daukat oraindik bidaiatzen jarraitzeko uztailera arte.

Gainera, urtarrila eta otsailean uda bete-betea egongo gara eta momentu ezinhobea izango da bidaiatzeko.

“Oso aberasgarria da bertakoekin elkartzeko aukera izatea”

NOAUA! Esperientzia horretan norekin ematen duzu denbora gehien, bertakoekin, euskaldunekin edo mundu zabaleko jendearekin?

Jone Allur: Ni inor ezagutu gabe etorri nintzen hona. Euskaldun bat badakit hemen dabilela, baina ez gara elkarrekin gehiegi ibiltzen. Ikasle-egoitza batean bizi naiz beste 80 pertsonekin. Den-denak latinoamerikarrak dira, ni naiz bakarria bertakoa

ez dena. Latinoamerikarrak oso irekiak dira eta gainera, zortea izan dut eta La Platako jendearen laguna ere egin naiz. Oso aberasgarria da bertakoekin elkartzeko aukera izatea. Ikasle-egoitzan kolonbiarrekin egoten naiz, brasildarrekin eta Latinoamerikako herrialde gehienetako jendearekin. Egunerokotasunean, unibertsitatean egin ditudan lagunekin egoten naiz edota hiriko jendearekin ere bai. Lagunak egiteko ez

dut inolako arazorik izan. Beti dago zeregina eta oso eskertuta nago. Nire helburua hori zen pixka bat, ez Espainiako jendearekin elkartzeko beste askok egiten duten moduan. Ni hona bertako jendea ezagutzera etorri naiz eta aukera izan dut hori egiteko.

Argentinarrak gertutik ezagutzeko aukera izan duzu. Dioten bezain hiztunak al dira?

Gu baino askoz ere irekiagoak

dira eta horrek shock bat sortzen du hasieran. Ezezagunak agurtzerako orduan, adibidez, musua ematen dute eta nik nahiko pertsona hotza naizela uste dudanez, hasieran arraro egiten da edo pixkatxo bat bortitza. Segituan ohitu nintzen, hala ere.

Astunak diren ez dakit esaten, ez litzateke haien zatitza aukeratuko nukeen lehen adjektiboa, baina irekiak bai.

“Bertako jendearengandik ikasten ari naizena izugarria da”

NOAUA! Argentinan egunerokotasuna partekatzen duzun pertsona horiek ere zure ikasketak berdinak edo antzekoak ari dira egiten?

Jone Allur: Ikasle-egoitzan jende asko gaude, baina inor ez da nire ikasketak berak egiten ari. Gehienak medikuntza ikasten ari dira eta oso ohikoa da Argentinara ikastera etortzea Latinoamerikako jendea, Argentinan unibertsitate ikasketak musutruk baitira. Fakultatean edo kalean ezagutu dudak jendearekin egoten naiz gehien, hala ere. Gai berak interesatzen zaizkigu eta egunerokotasuna partekatzea errazagoa da horrela. Militantzia eta politikan oso sartuta dagoen jendea da gehiena. Talde militante pila bat daude eta unibertsitatean hauteskundeak ditugu orain. Fakultateko hauteskundeek gobernurako hauteskundeak dirudite. Talde guztiek kartelak jartzen dituzte fakultatean, kanpaina egiten dute eta botoak eskatzen dizkigute unibertsitatean ikus-



“Fakultatean edo kalean ezagutu dudak jendearekin egoten naiz gehien”.

JONE ALLUR

“Ikasle-egoitzan, gehienak medikuntza ikasten ari dira. Latinoamerikan oso ohikoa da Argentinara etortzea ikastera”

ten gaituztenean. Izugarria da nola bizi duten politika. Iraila hasieran Argentinako presidentordea den Cristina Fernandez de Kirchnerren aurkako atentatu egin zuten, pistola batekin apuntatu zutenean. Osteguna

zen hemen eta herrialde osoko komunikabide guztiak hankaz gora jarri zituen. Hurrengo egunean jai eman ziguten fakultatean. Izugarritzko manifestazioak izan ziren Buenos Airesen. Politikarako duten grina eta herrialdean bizi duten nahasmen politikoa oso aberasgarriak dira niretzat eta argentinarekin hori bizitzeko aukera izatea ikaragarria da. Unibertsitatean asko ari naiz ikasten, baina bertako jendearengandik ikasten ari naizena izugarria da.

Euskal Herria ezagutzen dute horiek?

Nik uste onena baino gehiago. Kataluniaren erreferentzia gehiago dute eta askotan galdetzen didate ea egoera bera bizi dugun katalanek eta guk. La Platan euskal etxea ere badute eta izugarritzko mugimendua dago bertan. Abuztuan edo irailean Euskal Herriaren eguna ospatu zuten Buenos Airesen eta etxean bezala sentitu nintzen. Inguruko euskal etxeetan ibiltzen den jendea hurbildu zen eta izugarritzko festa antolatu zuten. Euskara entzuten nuen edonon, etxeko janaria jateko aukera izan nuen, euskal musika jarri zuten... etxera bihotza beteta itzuli nintzen. Erabat bizi dute euskal kultura hemen, jendeak lau-burua tatuatuta dauka, pentsa. Euskal etxera hurbiltzen naizen bakoitzean etxean bezala sentitzen naiz. Euskaldunen ondorengotza oparoa da hemen, ia denek dute abizen euskaldunen bat eta jakin badakite euskal jatorria dutela.

“Familiaz eta lagunez asko akordatzeko naiz”

NOAUA! Etxeko zerbait botatzeko al duzu faltan?

Jone Allur: Familia eta lagunez asko gogoratzen naiz. Ni oso zorionsua naiz arratsalde batean Aitzagara trago bat hartzera joate hutsarekin. Ez

dut asko behar pozik eta zorionsu egoteko. Orokorrean, euskaraz hitz egitea faltan botatzen dut. Pixkanaka gaztelaraz egunerokotasunean hitz egitera ohitzen ari naiz. Nire gaztelera maila inoiz ez da

zoragarria izan, eta lehen egunetan ezin nintzen lasai eta behar bezala espresatu. Aitzagari ere nolabaiteko ordezkioa aurkitu diot hemen, badut konfidantzazko taberna bat, baina Aitzaga ezin da aldatu.

Behin etxera itzulita zeintzuk dira zure asmoak?

Nire ikasketek bost urte iraute dute eta aurrean hirugarren urtean nagoenez, itzultzen naizenean oraindik beste bi faltako zaizkit.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

èskura
elikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

Joan Mari Torrealдай beka, Metrokoadroka kolektiboarentzat

Joan Mari Torrealдаiren izena daraman beka badu lehen saritua. 13 lan aurkeztu dira guztira eta hori bera ezusteko ederra izan da bai Jakinentzat zein Udalarentzat. Proiektu bakarra aukeratu behar ordea, eta epaimahaiak Oier Guillan eta Idoia Beratarbideren 'Artxibo biluzia' izenekoaren alde egin du. Orain, 18 hilabeteko epea izango dute aurkeztutako lana burutzeko.



'Artxibo biluzia' izeneko egitasmoa saritu dute bekaren lehen edizioan.

Udalak eta Jakin Fundazioak Joan Mari Torrealдай ikerketa beka iragarri zuten duela sei hilabete. Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak abenduaren 7ko agerraldian azaldu zuen moduan, "Usurbildik Euskal Herriari beste ekarpen bat egiteko bokazioz jaio zen beka". Era honetan, Torrealдай bizitza osoan egin zuen horretan sakondu nahi da: ikerketan, herrigin-

tzan, dibulgazioan eta transmisioan. Alkateak esan zuenez, Torrealдаiren obsesioetako bat azken hori zen, "transmisioa. Katea ez etetea eta pentsamendu bat eratzea. Eta noski, pentsamendu hori Euskal Herriaren zerbitzura jartzea".

13 proiektu aurkeztu dira

Beka deialdiaren lehen edizioak oso harrera ona izan du.

13 proiektu aurkeztu dira guztira. "Oso pozik gaude lehen deialdi honek izan duen harrekin eta erantzunarekin", ziurtatu zuen Solaberrietak.

'Artxibo biluzia' egitasmoak bi ardatz izango ditu

Oier Guillan Metrokoadrokako kideak eskerrak emanez hasi zuen bere azalpena. Euren proiektuak asko du dokumenta-

ziotik. Iraganerako begiradatzat hartzen den arren, etorkizunera begira jartzeko baliatzen dutela ziurtatu zuen, "dokumentazioa" bilakatzeko.

Metrokoadrokaren egitasmoak bi ardatz nagusi izango ditu. Batetik, hiru antzerki-performance pieza labur egingo dituzte. Bestetik, formazio saioak eskainiko dituzte. Tailer moduko bitartez, interesa agertzen duten artistei zein herritarrei tresnak emango zaizkie, euren aletxoak jartzeko aukera izan dezaten. Lan hori ere jasoa izango da.

Haritz Azurmendi Jakineko ordezkariaren esanetan, "etorkizuneko euskal kulturari begira jartzeko ariketa eskatzen genuen eta proposamenek heldu diote transmisioaren auziari, kulturgileen sarea josteko aukerei, herritarren parte hartzeari eta ikusgarritasunari".

Errepideetako hondakinak baimenik gabe ari dira isurtzen Aritzetan

Gipuzkoako errepideetako mantentze lanetan bildutako hondakinak Oria ibaian edota Aritzetan botatzen ari direla salatu dute egunotan Batzar Nagusietan. Usurbilgo Udalak isurketok berehala etetea galdegin du.

Udalak urgentziazko neurriak hartzea eskatu dio Foru Aldundiari. Bien bitartean, gertatzen ari denaren berri jaso eta berresten izan da udal ingurumeneko teknikaria. "Horren ostean, txostena egin du, esku-menak dituzten erakundeei gertaeren berri eman eta neurriak har ditzaten eskatzeko".

Bi eskaera egin dizkio Udalak Bidegiri: "Batetik, isurketa horiek berehala eten ditzala, eta, bestetik, proiektu bat egin dezala isurketen eremua zehaztu, eragindako kalteak aztertu eta eremua lehengora dezan. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailari berriz, lurzorua kutsa dezakeen jardue-



ELAren esanetan, Foru Aldundiak bazuen lege kanpoko isurketa hauen berri.

ra izanik, eskatu dio hartu beharreko neurriak ezarri eta horiek betetzera behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak zehaztu ditzala. Azken eskaera, URA Agentziari bideratu dio: isurketa eremua Arpidegietako erreka-sotik gertu egonik, dagozkion neurriak har ditzala".

"Foru Aldundiak badaki"

Sektore honetako langileek zazpi hilabete daramate greban, lan baldintza prekarioak salatzen eta zerbitzuan iruzurrik

ez egotea eskatzen. Lerrootara dakarkigu duela gutxi egini-ko bileran gertatutakoa, herri honekin duelako lotura. Erakuntza arloko ELA sindikatuko ordezkari Igor San Josek hartu zuen hitza eta errepideen kudeaketan lan egiten dutenen baldintza prekarioak salatzeaz gain, errepideen mantentze lanetako hondakinak baimenik gabe ingurunean isurtzen ari direla salatu zuten, besteak beste, Usurbilgo Aritzetan. Baita Orian ere, duela urte askotatik eta "hau Foru Aldundiak bada-

ki" salatu zuen San Josek. Jakitun izan arren ordea, "ez zaio konponbide bat eman". Errepideen mantentze lanetako hondakinak kamioi batek bildu behar litzuzkeela gogorarazi zuen.

Abenduaren 23an, ekitaldia Potxoenean

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak abenduaren 23an 18:00etan Potxoenean antolatu duen ekitaldian, Zubietako erraustegiaren kutsadurari buruzko azken berriak hartuko dituzte ahotan. Batetik, Holandako ToxicoWatch Fundazioak iaz egindako biomonitorizazioaren emaitzak aurkeztuko dituzte. Bestetik, Malen Azpiazu Zubeldia EHU-ko kimika fakultateko ikasle eta herrikideak gai honi buruz egindako Gradu Amaierako Lana aurkeztuko du: "Metal astunen determinazioa erraustegiaren inguruko gordio dion laginetan".

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Logela bat alokatu nahiko nuke ahal bada bi ohe dituen. Aukerarik baduzu: 641562917 (Mariaje)

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusia, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrak emateko

prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jabetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldeko haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lane-

tan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan. 609 647 728

BESTELAKOAK

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erloju beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzainetan galdetu, bertan utzi dugu.

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

**Zorionak Intza!**

Zorionak Intza zure 10. urtebetetzean. Etxekoak.



Zorionak Oinatz! Abenduaren 18an bost urte! Muxu erraldoi bat familiakoan partetik!

**Zorionak amona Lucia!**

Gustura ospatuko dugu zure 84. urtebetetze eguna! Muxu asko!

**Zorionak Izar!**

Irrikitan zure urtebetetze eguna ospatzeko. 7 muxu potolo etxekoan partez!!

Heriotzak

Javier Salsamendi Sagardia

Azaroaren 30ean hil zen, 74 urterekin

**Futbol partidak****Haranen****Abenduak 17, larunbata**

9:00 Alebinak
Eskola Kirola (bi partida).

10:15 Infantil neskak:

Usurbil FT A-Martutene KE B
Usurbil FT B-Martutene KE A

11:45 Jubenilak A:

Usurbil FT-Texas Lasartearra CF

15:00 Preferente neskak:

Usurbil FT-Goierri Gorri FK B

17:00 Preferenteak, mutilak:

Usurbil FT-Santo Tomas Lizeoa KE

19:00 1. Erregionalak:

Usurbil FT-Asoleus CF

Abenduak 18, igandea

10:00-12:30 Futbol Eskola.

13:30 Kadete neskak:

Usurbil FT-Goierri Gorri KF C

Futbol partidak**Kanpoan****Abenduak 17, larunbata**

12:00 Kadeteak preferenteak Urnietan:
Urniet KE-Usurbil FT

17:50 Jubenilak Felix Garinen:

-Arrupe Chaminade CD B
-Usurbil FT B

Abenduak 18, igandea

10:15 Infantil mutilak Martutenen:
Mundaiz SCD-Usurbil FT

11:45 Kadeteak Urnietan:
Urniet KE B-Usurbil FT B

Eskubaloia Oiardon**Abenduak 17, larunbata**

Jubenil neskak, 17:00
-Urbil-Usurbil KE
-Ordizia biook2.com
Senior mutilak, 18:45
-Usurbil KE
-Universidad Deusto-Loyola

Iker Nazabal eta Peru Iraetak euskal selekzioaren deia jaso dute.

Goardiako farmaziak

Osteguna 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 18 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteartea 20 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 21 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 23 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda abendua

16 ostirala

- **Eskulan tailerra Zorione Mendezen eskutik** 18:00etan udal liburutegian. Izen-ematea udal liburutegian bertan. Plaza mugatuak.

17 larunbata

- **Auzo galdeketa Santuenean** Ikus 5. or.
- **Gabonetako azoka eta bazar solidarioa Santuenean.**
- **Orbeldikoak Sutegin** 18:00etan Sutegin.
- **Adinekoentzako Guatekea** 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.

18 igandea

- **San Tomas Azoka.** Ikus 14. or.
- **Haurrentzako zinea: "Orkestra Lurtarra"** 17:00etan Sutegin. Sarrera: 3 euro. Aldez aurretik, usurbilkultura.eus bidez eskuragarri. Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Igandean haurrentzako zinea Sutegin: "Orkestra Lurtarra"

Bizitzan ezer ez da erraza ezta bat-batekoa, baina aldi berean asko dauka ospatzeko. Hori oso ondo ikasi dute Orkestra Lurtarra arrakastara... Edo ez... eramango duten musikariek.

Filmeko pertsonaiek eta hauek arrakasta horren bilaketan biziko dituzten hartu-emanek gizartea ezinhobeto erretratatzeko dute: Manu ameslaria, Salegi bizizale eta harroa, Perfumetti anai erromantikoak, Aldika orojakilea, Osoki bihurri eta egoskorra, Presidente izeneko ahuntza...

Filma Harkaitz Canoren 'Orkestra Lurtarra' liburuan oinarrituta dago. Joseba Poncek idatzi du musika guztia eta Harkaitz Canok berak eta Eneko Olasagastik



17:00etan hasiko da proiektzioa.

josi dute gidoia. Imanol Zinkunegi eta Joseba Ponce dira fimaren zuzendariak.

Abenduak 18, igandea

- 17:00etan Sutegin.
- Sarrera: 3 euro. Sarrerak, aldez aurretik, usurbilkultura.eus bidez.
- Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Eskulan tailerra liburutegian

Sutegi Udal Liburutegiak eskulan tailerra proposatu nahi die 8-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei. Abenduaren 16an izango da hori, ostiralean, 18:00etan hasita, Zorione Mendezen gidaritzapean. Aldez aurretik izena ematea ezinbestekoa izango da liburutegian bertan, plazak mugatuak baitira.



8-12 urteko gaztetxoei zuzendua egongo da.

Datozenak

Irakurketa-solasaldiak udal liburutegian

Haur eta gaztetxoen artean irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, irakurketa-solasaldiak antolatu dituzte Yolanda Arrietaekin.

Abenduak 20, asteartea

- 18:00 Irakurketa-solasaldia Yolanda Arrietaekin. LH 3-4 mailakoentzat. Juan Kruz Igerabideren "Euskal Herrietako ipuin gaiztoak" hartuko dituzte ahotan.

Abenduak 23, ostirala

- 11:00 Irakurketa-solasaldiak Yolanda Arrietaekin. LH 5-6 mailakoentzat. Yolanda Arrieta "Nitaz ahaztu dira" liburua hartuko dute ahotan.

Oharra:

Izen-ematea aurrez liburutegian eta bertan liburuak eskuragarri.

Ziortzaren San Tomas eguna, abenduaren 23an

Abenduaren 23an ospatuko du Ziortza Gazte Elkartek San Tomas eguna. Askatasuna plazan elkartuko dira arratsaldeko 18:00tan, jolas batzuk egin eta txistorra jateko. Ekintza DBHko gazte guztiei zuzenduta dago.

Usurbil Döner Kebab
USURBIL

843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkagaitak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

650
USURBIL
bizi

gabonetako Otarra

Zorte
on!!!

Eraman herriko
produktuz
betetako otarra.
Ez galdu aukera!

Beste
mundu bat
posible da.

100
otar
zozketatuko
ditugu!

Sari banaketa frontoian izango da,
abenduaren 31ean

San Silvestre herri lasterketa
amaitu ondoren.



hurbilago
ELKARLANTZA
2014-2015

Euskadi, auzolana, bien común

ELKARLANTZA GOBIERNO VASCO

Santueneako galdeketa

ERABAKIA PLAZARA!

Nahi al duzu auzoaren erdigunea
berrantolatu,
horretarako eskubaloi kantxaren
neurriak txikitu behar badira ere?

Bai / Ez / Zuri

Abenduaren 17an
10:00 – 20:00
Santuenea 12 lokalean

UDALA

parte hartu!



santuenea
elkarlanean



Santuenea Udala